

# Gorputzeko arrastoak

Adinekoen azalean arrasto ugari izaten dira: bizitzan zehar izandako zaurienak, urteek uzten dutena... Bideo honetan lau adineko dira protagonista.



Argazkia: Savine van Erp. Pixabay

Bideoa ikusi eta, bertako protagonistek diotenaren arabera, adierazi honako baieztapenak egia ala gezurra diren



<https://labur.eus/vbClO>



	Egia	Gezurra
Bideoko lau protagonistek orbanak ez ezik, zimurrak ere hizpide dituzte		
Gorputzean orbanak denek dituzte		
Lau protagonistak kezkatuta daude zimurrengatik, asko baitituzte		
Kilo batzuk sobera izateak zimurrak disimulatzen laguntzen du		
Ondo bizi izan denak ez du zimurrik, bere burua asko zaindu izan baitu		

## ERANTZUNAK

Bideoko lau protagonistek orbanak ez ezik, zimurrak ere hizpide dituzte - **Egia**

Gorputzean orbanak denek dituzte - **Egia**

Lau protagonistak kezkatuta daude zimurrengatik, asko baitituzte - **Gezurra**

Kilo batzuk sobera izateak zimurrak disimulatzen laguntzen du - **Egia**

Ondo bizi izan denak ez du zimurrik, bere burua asko zaindu izan baitu - **Gezurra**

## TRANSKRIPZIOA

**Jose Ramon Bilbao.** Gorputzeko markarik handiena izango da hauxe, hau, hau zikatriz (orbaina). Hemendik honakoa. Biruta batek jodidu eustan (txirbil batek izorratu zidan) buzoa (lan-jantzia) hemen eta zabaldu eustan hau dena honaino.

**Manu Arrizabalaga.** Eta gero buruan bere (ere) bai, zikatritz (orbaintxo) bat. Hori bez peaz ; ja handitxo naizela; jausi egin nintzen, eta bueno.

**Agueda Dominguez.** Bat dekot (daukat) hemen, txiketatik (txikitatik). Eskorpioi bat ikusi dot (dut) beda(rre)tik, eta eskapat(z)en, jaust, jausi nat (naiz); hemen egin dot (dut) hori...

**Loli Bilbao.** 24 urtegeaz (urterekin), erre egin nintzen. Quemaduras de segundo y tercer grado. (bigarren eta hirugarren mailako erreduinak). Aurpegi guztia, eta gero hemen eduki nuen asko. Orain dekot (daukat) gutxiago. Gero, zimurrek, pixka bat disimulatzen dute. (barreak)

**Esataria.** Zimurrek laguntzen dute markak disimulatzen?

**Loli Bilbao.** Bai.

**Jose Ramon Bilbao.** Zimurrak ja urten (irten), nahiago da, ze gaztetan ez gen(d)uen edukitzen zimurrik. Orain hori normala da. Baina 75 urtez gero...

**Agueda Dominguez.** Honek hemen deko (dauka) hau, eta beti pentsatzen nau (dut) hau apurtxo bat hola gelditzen badau (bada), ni pozik egongo naiz.

**Manu Arrizabalaga.** Zimurrak apurtxo bat lodi bazeuden eran, zimurrak kendu egiten direz (dira). Argal-argaltxo daudeneri (daudenei) zimurrak urteten deusez (zaizkie), baina apurtxo bat loditxo bazagoz, betetu (bazaude, bete) egiten da aurpegia. Eta hori eta... (barreak)

**Loli Bilbao.** Nik markak ikusten dodazenean (ditudanean) pentsatzen dot (dut): "bueno, hau izan da nire bizitza". Nik mis sellos de identidad (izaera-arrastoak), dekodaz (daukat) hor marka batzuk, baina ni, bueno, pozik nago, o sea, (alegia) ez lotsarik, ez; ez dodaz (ditut) ezkututzen. Ondo bizitako bizitzaren seinaleak dira.